

# BATXILERGOKO 1. MAILA

## EKONOMIA

# ORAINA GARA ETA ETORKIZUNA ERABAKIKO DUGU

Julia María  
Cuevas Gordo

Ikasketa-  
egoeren  
programazioa  
(LOMLOE)


Finantzailea:



Proiektu bat:



# Testuingurua



# Programazioa 8 saio

ira

urri

azar

aben

urt

ots

mar

api

mai

eka

# Ikuspegi metodologikoa

- **Ikasketa-zerbitzua**
- **Ikasketa-paisaia**
- ✓ **Ulermen-proiektua**
- ✓ **Proiektuetan oinarritutako ikasketa (poi)**
- ✓ **Design thinking**
- ✓ **Flipped classroom**
- ✓ **Ikasketa kooperatiboa**
- ✓ **Pentsamenduan oinarritutako ikasketa**
- ✓ **Arazoetan oinarritutako ikasketa**
- ✓ **Beste bat: antzerkia**

# IKT Baliabideak

## Narratiba

Egoera ekonomiko aldakorraren aurrean, gazteak oraina zarete eta jakin nahi dugu zeintzuk diren zuen kezkak eta ikuspegia mundu mailako ekonomiaren inguruan. Prestatu zaitezte ahalduzko eta egungo sistema ekonomikoari soluzioak eta alternatibak aurkitzeko! Zuen laguntza behar dugu!

## Baliabideak

Interneteko konexioa duten ordenagailuak, bideoak ikusteko entzungailuak, post it.

## Web-orriak

- *Zer da NBE? Historia eta funtzioak.*
- *Nazio Batuen ereduaren trebakuntza-bideoa - Eztabaidaren unea.*
- *GJH.*
- *NBE akten bilaketa.*
- *Chatgpt.*
- *Jarduerak ebaluatzeko errubrikak.*

## Bideoak editatzeko programak

- Ikasleen aukerakoak.Iradokizunak:
- *Filmora.*
  - *Animaker.*
  - *Vimeo.*

## Hezkuntza Itun Globalaren landu beharreko arloak

Ikasketa-egoera honetan, Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) zuzen erlazionatuta dauden Hezkuntza Itun Globalaren funtsezko arloetan lan egingo dute ikasleek. Arlo hauek barne hartzen dituzte:

- 1. Garapen jasangarrirako hezkuntza:** ikasleek GJHak aztertuko dituzte eta ulertuko dute nola munduko erronka ekonomikoak elkarri konekatuta dauden, gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-alderdi zabalagoak aztertuta.
- 2. Herritartasun globalaren sustapena:** auzo edo komunitatean egiten diren ekimenak ikertzean, ikasleek GJHak lortzeko tokiko ekintzak duen garrantzia ikasiko dute eta herritar global aktibo bilakatuko dira, tokiko testuinguruan, arazo globalei soluzioak bilatzen dizkietenak.
- 3. XXI. menderako gaitasunak:** NBE motako eztabaida bat antolatzean, ikasleek honako gaitasun hauek garatuko dituzte: pentsamendu kritikoa, komunikazio eraginkorra, talde-lana eta arazoaren ebazpena. Horiek guztiak funtsezkoak dira egungo erronka ekonomiko eta sozialei aurre egiteko.
- 4. Berrikuntza eta ekintzailtza:** munduko erronka ekonomikoei ekiten dieten ekimenak komunitatean bilatzean, soluzio jasangarrien bilaketan berrikuntza eta ekintzailtza sozialak duen garrantzia ikasiko dute ikasleek.

Laburbilduz, ikasketa-egoera honek aukera integrala eskaintzen die ikasleei GJHei ekiteko Hezkuntza Itun Globalaren hainbat arloren bitartez, hezkuntza inklusibo, bidezko eta kalitatezko bat sustatuz, ikasleak prestatuko dituena XXI. mendearen erronka globalei aurre egiteko.

## Ebaluazio-irizpideak

### Ikasketa-helburuak

(ebaluazio-irizpide bakoitzerako, ikaslearentzako ikasketa-helburuak bildu)

#### 1. Irizpidea

Gai naiz funtsezko kontzeptu ekonomikoak ulertzeko eta horiek ekonomia berriaren testuinguruan azaltzeko, hala nola ekonomia digitala, ekonomia kolaboratiboa eta globalizazio ekonomikoa.

#### 2. Irizpidea

Gai naiz ekonomia berriarekin erlazionatutako kasu praktikoak aztertzeko, egoera ekonomiko eta sozial desberdinetan dauden erronka eta abagune espezifikoak identifikatuta.

#### 3. Irizpidea

Gai naiz ekonomia berriari buruzko informazio garrantzitsua ikertzeko eta analizatzeko, argudioak eta ondorioak oinarritzeko datu ekonomikoak erabilia.

#### 4. Irizpidea

Gai naiz ekonomia berriaren erronka eta aukeren inguruan kritikoki hausnartzeko, ondorio posibleak hautemanez eta soluzioak edo ekintza-estrategiak proposatuz.

#### 5. Irizpidea

Gai naiz argi eta modu koherentean ekonomia berriaren inguruko nire ideiak komunikatzeko, ahozkoan zein idatzian, hizkuntza egokia erabilia eta nire argudioak logikoki egituratuta.

#### 6. Irizpidea

Gai naiz taldean, lankidetzan, lan egiteko ekonomia berriarekin erlazionatutako gaiak ikertu, analizatu eta aurkezteko, talde-lanerako gaitasunak, elkarrekiko errespetua eta partaidetza aktiboa frogatuz.

# Gaitasun espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak

| Gaitasun espezifikoa   | Funtsezko gaitasunen deskriptoreak                                      | Ebaluazio-irizpideak   | Oinarrizko jakintzak (edukiak)  |
|--|---|--|---|
| <p><b>1. Gaitasun espezifikoa:</b><br/>Eskasiaren arazoa eta arlo ekonomikoan erabakiak hartzearen garrantzia baloratzea, haren eragina sektore desberdinetan aztertuta, sistema desberdinek eskaintako soluzio alternatiboak alderatuz, errealitate ekonomikoaren funtzio-namendua ulertzeko.</p> | <p>CCL3 /<br/>STEM4 /<br/>CD5 /<br/>CPSAA 5 /<br/>CPSAA7 /<br/>CE1.</p> | <p><b>1.1.</b> Egungo errealitate ekonomikoa ulertzea, arlo ekonomikoan hartutako erabakien eragina aztertuta, integrazio ekonomikoko prozesuan baloratu eta konparazioak ezarri sistema desberdinek eskaintzen dituzten soluzio alternatiboan inguruan.</p> <p><b>1.2.</b> Eskasiaren arazoa ulertzea arazoak ulertuz eta hura ebazteko estrategia ekonomiko desberdinak justifikatuta alderatuz.</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Espainiako ekonomiaren erronkak testuinguru globalizatuan.</li> <li>• Globalizazioa: azalpenezko faktoreak, aukerak eta arriskuak. Desberdinkerien murrizketa.</li> <li>• Ekonomia berria eta iraultza digitala. Ekonomia kolaboratiboa. Ekonomia ekologikoa eta ekonomia zirkularra.</li> </ul> |



| Gaitasun espezifikoa | Funtsezko gaitasunen deskriptoreak | Ebaluazio-irizpideak  | Oinarrizko jakintzak (edukiak)  |
|----------------------|------------------------------------|---|---|
|                      |                                    | <p><b>1.3.</b> Erabaki ekonomikoak hartzerakoan tartean dauden prozesuak ezagutzea indibidualki zein kolektiboki, gizartean duten inpaktua aztertuta.</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Iraultza digitalak enpleguan eta errenta-banaketan izan duen inpaktua. Populazio aktiboaren egokitzapena iraultza digitalaren erronken aurrean.</li> <li>• Demokrazia eta ongizate-estatua. Ongizate-estatuaren etorkizuna eta demokraziarekin duen erlazioa. Pentsioen jasangarritasuna. Migrazio-fluxuak eta ondorio sozioekonomikoak.</li> <li>• Beherapen ekonomikoari buruzko teoriak. Garapen Jasangarrirako Helburuak.</li> </ul> |

## Gaitasun espezifikoa

### 5. Gaitasun espezifikoa:

Egungo ekonomiaren erronkak identifikatzea eta horiek baloratzea, globalizazio ekonomikoaren, ekonomia berriaren eta iraultza digitalaren inpaktua aztertuta, ekitatea, justizia eta jasangarritasuna sustatuko duten ekintzak proposatzeko.

## Funtsezko gaitasunen deskriptoreak

CCL3 /  
STEM4 /  
CD5 /  
CPSAA 5 /  
CPSAA7 /  
CE1.

## Ebaluazio-irizpideak

**5.1.** Ekitatea, justizia eta jasangarritasuna sustatuko dituzten ekimenak proposatzea egungo ekonomiak dituen erronkak identifikatzetik abiatuta, zentzu kritikoa erabilia globalizazioak, ekonomia berriak eta iraultza digitalak herritarren ongizate ekonomikoan eta sozialean duen eragina aztertuz.

**5.2.** Egungo erronka ekonomikoak ulertzea, modu kritiko eta konstruktiboan ingurunea aztertuz, ekonomia baldintzatzen eta eraldatzen duten elementuak identifikatuz eta erronka horiek dituzten beharrei erantzungo dieten ekimenak sustatuz.

## Gaitasun espezifikoa

### 6. Gaitasun espezifikoa:

Kasuen azterketaren, ikerketaren eta esperimendazioaren bidez egungo arazo ekonomikoak aztertzea, analisi ekonomikorako tresnak erabiliz eta kontuan hartuz agente ekonomikoen erabakiak baldintzatzen dituzten faktoreak. Horrela, arazo horien ulermena erraztu nahi da eta soluzio berritzaile eta jasangarriak sortu, zeinak behar indibidual eta kolektiboetarako erantzunak eman.

## Funtsezko gaitasunen deskriptoreak

CCL3 /  
STEM4 /  
CD5 /  
CPSAA 5 /  
CPSAA7 /  
CE1.

## Ebaluazio-irizpideak

**6.1.** Behar indibidual eta kolektiboetarako erantzunetarako soluzio sozioekonomikoak planteatzea errealitate ekonomikoa ikertuz eta esploratuz, hainbat faktore kontuan hartuta eta ekonomiaren arloko tresna propioak aplikatuta.

# Sekuentzia didaktikoa

| Ebaluazio-irizpidea | Zeregin/jarduera mota | Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita  | Ikasketa-ebidentziak   | Ebaluazio-tresnak   | Ebaluazio-agentea                                  |
|---------------------|-----------------------|--|--|---|--|
|                     | Izan enpatia.         | <p><b>S1. NBE eztabaida:</b><br/> <b>Lehen saioa:</b><br/> <b>Eztabaidaren prestaketa eta eztabaida (55 minutu)</b><br/> <b>0. Zatia: Zer da NBE? (5 minutu)</b><br/> Hurrengo bideoa ikusita, ikasleek koadernoan idatziko dituzte helburu nagusiak (NBEren 4 helburu) eta baita horien aitzindariak ere.<br/> <i>Zer da NBE?</i></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gai ekonomikoak oinarri teorikoak eta datu enpirikoak erabilita eztabaidatzeko gaitasuna.</li> <li>• Egungo gai ekonomikoen inguruko argudio koherenteen garapena.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eztabaidan, pertsona bakoitzeko parte-hartze bat gutxienez.</li> <li>• <i>Autoebaluazioa</i>, talde bakoitzak, errubrika erabilita, gainontzekoen parte-hartzeak ebaluatuko ditu.</li> </ul> | <p>Irakasleak.<br/> Errubrikak.<br/> Ikasleak.</p> |

## Zereginaren/jar- dueraren deskri- bapena orden kro- nologikoa erabilia

### 1. Zatia: Esploratu (10 minutu)

Eztabaida hasi aurretik, ikasleek hurrengo esteka erabiliko dute NBEk nola funtzionatzen duen ulertzeko eta eztabaidaren arauak eta funtzionamendua adostu ahal izateko. Talde bakoitzak eskema txiki bat idatzi beharko du, non ezarriko duen Batzarraren funtzionamendu orokorra.

*NBEko eztabaida motak.*

Eztabaidaren gaia aurkeztea, esaterako, “Desberdinkeria globala murrizteko politika ekonomikoak”. Ikasleek 3 edo 4 ikasleko taldeetan egingo dute lan.

Ikasleek lan-orri bat ezarri beharko dute (eztabaida orokorra) hurrengo eztabaidarako, zeina azken saioan egingo den (eztabaida partikularra)

### 2. Zatia: Rol eta herrialdeen esleipena (10 minutu)

Ikasleak taldeetan banatu eta talde bakoitzari eztabaidan ordezkatzeko herrialde bat esleitu.

Talde bakoitzari haren herrialdeak, ekonomia globalarekiko duen erlazioari dagokionez, egun duen posizio ekonomikoari eta politikoari buruzko informazioa eman. Proposatutako herrialdeak:

- **Ameriketako Estatu Batuak:** munduko potentzia ekonomiko nagusietako bat da, Ameriketako Estatu Batuek ekonomia garatu baten ikuspegia adieraz lezake eta, horretaz gain, merkataritzaren liberalizazioa, atzerriko inbertsioa eta berrikuntza teknologikoa duen ikuspegia.

## Zereginaren/jar- dueraren deskri- bapena orden kro- nologikoa erabilita

- **Txina:** Munduko bigarren ekonomiarik handiena, Txinak ekonomia emergente baten ikuspuntua adieraz lezake eta bere ikuspegia garapen ekonomiko jasangarrian, nazioarteko kooperazioan eta hazkunde ekonomikoaren eta aberastasunaren birbanaketaren arteko oreka izango litzateke.
- **India/Bangladesh:** Garapen bidean dagoen eta populazio handiko ekonomia den aldetik, Indiak trantsizio egoeran dagoen herrialde baten ikuspuntua adieraz lezake eta haren ikuspegia pobrezia murrizketan, azpiegituren garapenean eta inklusio finantzarioaren sustapenean oinarrituko litzateke. Europar Batasuna oso handia denez, bi ordezkari banatzeko aukera proposatzen da.
- **Alemania:** Europako ekonomia handiena, Alemaniak Europako ekonomia aurreratu baten ikuspuntua adieraz lezake eta haren ikuspegia egonkortasun ekonomikoan, eskualdeen integrazioan eta erantzukizun fiskalean ardaztuko litzateke.
- **Espainia:** Alemaniaren aldean, ekonomikoki lehentasun desberdinak dituen Europako herrialdea.
- **Brasil:** Latinoamerikako ekonomia emergentea, Brasilek garapen bidean dagoen herrialde baten ikuspuntua adieraz lezake eta haren ikuspegia nekazaritzan, manufaktura-industrian eta, horretaz gain, desberdinkeria sozial eta ekonomikoaren aurkako borrokan oinarrituko litzateke.
- **Kongoko Errepublika Demokratikoa:** Koltanaren iturri nagusietako bat izateaz gain, Afrikako herrialde baten ikuspuntua adieraz lezake eta haren ikuspegia garapen jasangarrian, azpiegituretako inbertsioan eta kontinente barneko merkataritzaren sustapenean ardaztuko litzateke.

## Zereginaren/jar- dueraren deskri- bapena orden kro- nologikoa erabilita

### 3. Zatia: Ikerketa eta prestaketa (20 minutu)

Taldeek beren herrialdeak egun duen posizio ekonomiko eta politikoari buruzko ikerketak egingo dituzte, eztabaidaren gaiari dagokionez.

Herrialdeak NBEren eztabaidan defendatuko lituzkeen interesak eta helburu ekonomikoak identifikatu behar dituzte, eta baita posizio hori laguntzeko erabiliko lituzketen argudioak ere.

### 4. Zatia: NBEren eztabaida (20 minutu)

#### 1. Zatia: Eztabaidaren sarrera (3 minutu)

Eztabaidaren arauak eta parte-hartzearen ordena ikasleei gogoratzea.

#### 2. Zatia: Eztabaiden aurkezpena (12 minutu)

Talde bakoitzak haren herrialdea ordezkatzuz aurkeztuko du diskurtsoa, eztabaidaren gaiari dagokionez argudioak azalduz eta interesak defendatuz. Talde bakoitzak 3 minutuko aurkezpen bat egin beharko du.

Saio honetan, ikasleek aukera izango dute ekonomia globalari dagokionez herrialdeen ikuspegi desberdinak ikertzeko eta ulertzeko, eztabaidarako, negoziatzarako eta talde-lanerako gaitasunak garatzeaz gain. países en relación con la economía global, así como de desarrollar habilidades de debate, negociación y trabajo en equipo.

| Ebaluazio-irizpidea       | Zeregin/jarduera mota | Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita   | Ikasketa-ebidentziak   | Ebaluazio-tresnak                             | Ebaluazio-agentea                |
|---------------------------|-----------------------|---|--|---|----------------------------------|
| 1.1<br>1.2<br>2.1<br>2.2; | Idea.                 | <p><b>S2. Eztabaidan jasotakoaren bidez munduko ekonomiaren erronka nagusiak identifikatzea:</b></p> <p><b>1. Zatia: Sarrera (15 minutu)</b></p> <p>Eztabaida prestatzeko eta han parte-hartzeko prozesuaren inguruan, eta baita herrialde desberdinek aurkeztutako ikuspegi desberdinen inguruan hausnartzeko gonbita egiten zaie ikasleei (talde handian).</p> <p>Arazo ekonomiko globalak ebazteko elkarrizketak eta nazioarteko lankidetzak duen garrantziari buruzko eztabaida sustatzen da.</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekonomia globalaren eta nazionalaren analisi kritikoa:</li> <li>• Globalizazioaren ebaluazioa eta haren ondorioak tokiko ekonomietan. Politika ekonomiko nazionalen analisia eta beren eragina gizartean .</li> </ul> | Landutako gai nagusiarekin aurkezpena egitea. | Irakasleak.<br><i>Errubrika.</i> |



## Zereginaren/jar- dueraren deskri- bapena orden kro- nologikoa erabilia

Ikasleek post it orriak erabil ditzakete munduko ekonomiaren erronka nagusiak zeintzuk diren idazteko eta, ondoren, erronkak bloke hauetan taldekatuko dira (LOMLOE):

- 1. Ekonomia lineala- zirkularra eta ingurumena.**
- 2. Iraultza digitalak enpleguan duen inpaktua.**
- 3. Populazioaren egokitzapena iraultza digitalera eta kolektiboen bazterketa.**
- 4. Ongizate-estatuaren etorkizuna/pentsioen jasangarritasuna, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera.**
- 5. Hazkunde ekonomikoa eta migrazio-fluxuak.**
- 6. Beherapen ekonomikoaren teoriak.**

### **2. Zatia: Taldeak identifikatutako arazo baten esleipena eta horren inguruko eztabaida (15 minutu)**

Taldeko hausnarketarako gida-galderak

- Zeintzuk dira identifikatutako arazo ekonomiko globalaren kausa eta ondorio nagusiak?
- Nolako izan da taldeko eztabaida- eta analisi-prozesua?
- Talde-laneko zer gaitasun praktikatatu duzu jarduera honetan?

## Zereginaren/jar- dueraren deskri- bapena orden kro- nologikoa erabilia

### 3. Zatia: soluzioak ikertzea (15 minutu)

Ikasleek ikerketa sakona egingo dute identifikatutako arazo ekonomikoarekin erlazionatuta dauden soluzio berritzaile eta jasangarrien inguruan. Askotariko iturriak erabiliko dituzte, estrategia egokiaren inguruko informazioa ematen dutenak.


Gida-galderak:

- Zer soluzio berritzaile eta jasangarri aurkitu dituzu ikerketan?
- Zure ustez, soluzio horiek zer eragin izan dezakete identifikatutako arazo ekonomiko globalean?
- Nola baloratzen duzu ekonomian alternatiba jasangarriak bilatzea?

### 4. Zatia: bateratze-lana eta itxiera (5 minutu)

Eztabaidaren sustapena: garapen ekonomikoan eragina duten faktoreen eta horiek globalki duten garrantziaren inguruan iritziak eta hausnarketak partekatzeke ikasleak animatzea.

Ondorioak: saioan landutako puntu nagusiak laburtzea eta erronka ekonomiko globalei aurre egiteko faktore horiek ulertzearen garrantzia nabarmentzea.



| Ebaluazio-irizpidea  | Zeregin/jarduera mota | Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita  | Ikasketa-ebidentziak   | Ebaluazio-tresnak                        | Ebaluazio-agentea |
|----------------------|-----------------------|--|--|--|-------------------|
| 3.2;<br>6.3;<br>6.4; | Idea 2.               | <p><b>S3. GJHak eta horien erlazioa identifikatutako erronka ekonomikoekin:</b></p> <p><b>1. Zatia: Sarrera (5 minutu)</b></p> <p>Gaiaren aurkezpena: aztertutako erronka ekonomiko batean eta horrek GJHekin duen erlazioan ardaztuko garela ikasleei azaltzea.</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arazoen identifikazioa, hala nola langabezia, inflazioa, pobrezia eta desberdintasun ekonomikoak.</li> <li>• Arazo horiei ekiteko soluzio eta politika posibleen ebaluazioa.</li> </ul> | Horma-irudia <i>errubrika</i> erabilita. | Irakasleak.       |

## Zereginaren/jarduaren deskribapena orden kronologikoa erabilia

### 2. Zatia: ikerketa (20 minutu)

Honako gaietako bat ikertu eta aztertu beharko dute: ekonomia lineala vs ekonomia zirkularra, ingurumenaren inpaktua, iraultza digitala eta enplegua, populazioa iraultza digitalera moldatzea, ongizate-estatuaren etorkizuna eta pentsioen jasangarritasuna, hazkunde ekonomikoa eta migrazio-fluxuak. Bisualki gaia irudikatzen duen prototipo bat (HORMA-IRUDIA) egin beharko dute eta gainerako klase-kideei aurkeztu beharko diete.

### 3. Zatia: GJHekin erlazioa (25 minutu)

1. Ikasleek ikertuko dute zer oinarri duten GJHek eta aukeratu egingo dituzte garrantzitsuak iruditzen zaizkien bi gutxienez, horiei ekiteko, aipatutako erronka ekonomikoei dagokienez. Horretarako orri hau erabiliko dute: [GJH](#).
2. Ikasleek aztertuko dute nola lotzen diren hautatutako GJH horiek ikasten ari diren erronka ekonomikoarekin
3. Aipatutako erlazio hori lantzeko ondorio eta proposamenak egindako horma-irudiari gehitu.

### 4. Zatia: itxiera (5 minutu)

Jarduera osterako hausnarketa-galderak:

- Zure ustez, etorkizun hurbilean, zer eragin izango dituzte erronka ekonomiko horiek zure eguneroko bizitzan?
- Zure ustez, nola aurki liteke garapen ekonomikoaren eta ingurumen-jasangarritasunaren arteko oreka?
- Zer paper dute gazteek etorkizun ekonomiko justuago eta jasangarriago baten eraikuntzan?
- Zer paper du jasangarritasunak egungo erronka ekonomikoen ebazpenean?

| Ebaluazio-irizpidea         | Zeregin/jarduera mota | Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita  | Ikasketa-ebidentziak  | Ebaluazio-tresnak  | Ebaluazio-agentea  |
|-----------------------------|-----------------------|--|---|--|--|
| 3.2;<br>4.1;<br>6.1;<br>6.4 | Prototipoa.           | <p><b>S4 ETA S5. Ingurunera hurbilketa:</b></p> <p><b>4. Saioa</b></p> <p><b>1. Zatia: gure komunitate / auzoan ikusitako arazoak lantzen dituzten ekimenen bilaketa (25 min). Esploratu.</b></p> <p>Ikasleek ekimen berritzaileak bilatuko dituzte auzoan, egungo arazo ekonomikoak lantzen dituztenak.</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Oinarri teorikoak eta datu enpirikoak erabilia gai ekonomikoak eztabaidatzeko gaitasuna.</li> <li>Egungo gai ekonomikoen inguruko argudio koherenteen garapena.</li> </ul> | <p>4. saioa. <i>Prestatutako aurkezpenaren errubrika.</i></p> <p>5. saioa. <i>Helbide elektronikoaren egiaztapenerako zerrenda</i></p> | <p>Koebaluazioa errubrika bidez aurkezpenerako.</p> <p>Helbide elektronikoaren egiaztapenerako zerrenda.</p> |

## Zereginaren/jar- dueraren deskri- bapena orden kro- nologikoa erabilia

Taldeak osatuta, honako gai hauetako bakoitzerako: ekonomia lineal-zirkularra eta ingurumena, iraultza digitalaren inpaktua enpleguan, populazioa iraultza digitalera moldatzea eta kolektiboen bazterketa, ongizate-estatuaren etorkizuna/pentsioen jasagarritasuna, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, hazkunde ekonomikoa eta migrazio-fluxuak, beherapen ekonomikoaren teoriak. Ikertu auzoan eta proposatu auzo edo komunitateko ekimen bat, zeinak ebatzi edo arinduko duen aukeratutako problematika.

Gida-galderak:

- Zure ustez, zer inpaktu izango luke proposatutako ekimena zure auzoan edo bizi zaren lekuan implementatzeak?
- Zure ustez, nola nahas ditzakegu pertsona gehiago tokiko berrikuntza proiektu mota hauetan?
- Zure ustez, zer beste problematika ekonomiko landu litezke antzeko ekimenekin gure auzoan?

### **2. Zatia. Bateratze-lana (20-25 min)**

Talde bakoitzak bost minutu izango ditu, 3 eta 8 diapositiba arteko aurkezpena eginda, ikertutako helburuarekin bat egiten dutela uste duten eta aurkitu dituzten bi proiektu aurkezteko.

### **3. Zatia. Bozketa eta itxiera (5 min)**

Kideek aurkeztutako ekimenetatik, talde desberdinek interesgarrienak iruditu zaizkienak idatziko dituzte. Aurkezpenak amaituta, gehien gustatu zaien proposamena bozkatuko dute. Talde bakoitzak gainerakoek gehien bozkatutako proposamena ikertzen jarraituko du.


## Zereginaren/jar- dueraren deskri- bapena orden kro- nologikoa erabilita

### 5. Saioa.

#### 1. Zatia: erakundeekin elkarrizketak prestatzea (urruneko formatua) (25 min)

Elkarteekin harremanetan jarri elkarrizketa bat antolatzeko; horretan, sakon adierazi eta trukatu dira aurkeztutako problematikaren inguruko iritziak. Prototipo-mezua eta galderen gidoia egiteko, honako gida-galderak proposatzen dira:

- ZER JAKIN NAHI DUT?
- NOLA GALDETUKO DUT?
- ZER ERANTZUN JASOKO DUT?
- ZER ADIERAZTEN DIT ERANTZUNAK?



## Zereginaren/jar- dueraren deskri- bapena orden kro- nologikoa erabilia

### 2. Zatia. Bideoaren gidoia (25 min)

Ikasleek elkarte/erakundeen erantzunak lortzeko denbora beharko dutenez, saioaren bigarren zatia erabiliko dute azken saioan aurkezteko egingo duten bideoaren gidoia prestatzeko. Bideoak 8 eta 10 minutu arteko iraupena izan beharko du eta zati hauek izango ditu:

1. Problematikaren aurkezpena eta erlazionatutako GJHa (3 min).
2. Erronka ekonomikoari eta/edo erlazionatutako GJHari nolabait ekiten dion eta komunitatean egiten den hautatutako ekimena erakustea (3 min).
3. Ondorioak eta antolaketari eta lan-metodoari buruzko hausnarketa (2 min).

Gainera, ikasleek **honako gai hauek** aurreikusi beharko dituzte gidoian:

- Nire bideoa grabatzeko erabili nahi ditudan eremuei dagokienez, bakarra da ala asko dira? Eremu horietan grabatzeko baimenik behar dut? Aukeratu dugun eremuan akustika ona mantendu ahal izango dugu?
- Erabiliko dugun bideoa editatzeko programaren hautaketa.
- Taldekide guztien partaidetza, guztiok parte hartuko dugu eta guztiak agertuko gara bideoan, salbuespenik gabe.



| Ebaluazio-irizpidea         | Zeregin/jarduera mota | Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita   | Ikasketa-ebidentziak  | Ebaluazio-tresnak                  | Ebaluazio-agentea                                    |
|-----------------------------|-----------------------|---|---|------------------------------------|--|
| 3.2;<br>4.1;<br>6.1;<br>6.4 | Prototipoa.           | <p><b>S6 eta S7. Bideoaren eta mahai-inguruaren prestaketa</b></p> <p><b>6. Saioa. Bideoaren prestaketa</b></p> <p><b>1. Zatia. Elkarten erantzunak laburtzea (15 min)</b></p> <p>Elkarte/erakundeetatik erantzunak jaso ostean, garrantzitsutzat jotzen dugun informazioa laburtuko dugu gure bideoan txertatzeko.</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Agente ekonomiko nagusien identifikazioa eta azalpena (familiak, enpresak eta sektore publikoa).</li> <li>• Sistema ekonomikoen eta ezaugarrien analisisa..</li> </ul> | <i>Bideoaren kontrol-zerrenda.</i> | Irakasleak.<br><br>Errubrika bidezko autoebaluazioa. |

## Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilia

### 2. Zatia. Bideoaren grabazioa (35 min)

Ondorioak eta egoera hauei ekiteko proposamenak aurkeztuko dituen bideo bat sortu beharko da, zeinak dagoeneko identifikatuta eta banatuta dauden taldeen artean. Bideoak honakoak izan behar ditu: Tetuango tokiko testuingurua barne hartzen duen sarrera, identifikatutako problematiken aurkezpena, aurkitutako ekimenen analisia, ondorioak eta soluzio-proposamenak.

Jarduerarako gida-galderak:

- Zer eragin izan dezakete tokiko ekimenek auzoko/komunitateko ekonomia zirkularrean eta ingurumenean?
- Zuen ustez, gaur egun, iraultza digitala nola ari da eragiten enpleguan eta kolektibo jakin batzuk gizartean sartzean/baztertzean?
- Zer paper dute politika publikoek eta berrikuntza sozialak bizi garen auzoko tokiko testuinguruari dagokionez, ongizate-estatuaren jasangarritasunean eta migrazio-fluxuen kudeaketan?

### 3. Zatia. Itxiera (5 min)

Talde bakoitzeko pertsona batek azalduko du saioan zehar lanaren bilakaera nolakoa izan den. Hausnarketarako gida-galderak:

- Bideoa sortzeko, guztiok parte hartu dugu? Zein izan da nire ekarpen pertsonala?
- Nola sentitu naiz? Zer gustatu zait gaurko lanetik? Zer iruditu zait frustragarria/zer hobetu nahiko nuke?

## Zereginaren/jar- dueraren deskri- bapena orden kro- nologikoa erabilita

### 7. Saioa. Bideoaren edizioa eta amaierako eztabaidaren prestaketa.

#### 1. Zatia. Bideoaren edizioa (20 min)

Saioaren lehen zatian, ikasleek minutu batzuk izango dituzte prestatu duten bideoari ukituak eman eta hura editatzeko.

Lana behar bezala egiten ari garela egiaztatzeko balio izan dezaketen galdera batzuk (bideoaren gutxieneko edukia, aurrez azaldu duguna):

1. Bideoaren edukia eta iraupena:  
Problematikaren aurkezpena eta erlazionatutako GJHa (3 min).  
Erronka ekonomikoari eta/edo erlazionatutako GJHari nolabait ekiten dion eta komunitatean egiten den hautatutako ekimena erakustea (3 min).
2. Ondorioak eta antolaketari eta lan-metodoari buruzko hausnarketa (2 min).
3. Bideoaren akustika, behar bezala entzuten zaie parte-hartzaileei bideo osoan zehar.  
Taldekide guztien partaidetza, guztiok parte hartuko dugu eta guztiak agertuko gara bideoan, salbuespenik gabe.

#### 2. Zatia. Mahai inguruaren/eztabaidaren prestaketa (30 min).

Behin bideoa prestatuta, bideoak esku-hartzeak ordezteko du helburu eta horren inguruan egitea hasierako eztabaida. Desberdintasuna izango da talde bakoitzak elkarte bat izango duela lagun, ekarpenak osatu eta sortu ditzakeena.

Eztabaida-egunerako, ikasleek kronograma bat egin beharko dute, kontuan hartuta ordu eta erdi dugula, eta honako eskema hau errespetatu beharko du:

1. Elkarte parte-hartzaileen harrera.
2. Bideoen babesak.
3. Eztabaida.
4. Oharrak eta itxiera.

| Ebaluazio-irizpidea | Zeregin/jarduera mota | Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita  | Ikasketa-ebidentziak | Ebaluazio-tresnak       | Ebaluazio-agentea |
|---------------------|-----------------------|--|----------------------|-------------------------|-------------------|
|                     | Probatzea.            | <p><b>S8. Erakundeekin bilera eta ikasketaren ospakizuna.</b></p> <p>Ikasleek identifikatutako erronken inguruko eztabaida partikularra egingo dute, ikasleek lideratuta eta erakundeen lankidetzarekin.</p> | Bideoa.              | Ikasketaren ospakizuna. |                   |



# Amaierako produktuaren publiko hartzailea

- ✓ Hezkuntza-maila eta klase-taldea
- ✓ Ikastetxea
- Familiak
- ✓ Auzoa edo herria
- ✓ Erakundeak
- Adituak
- ✓ Webgunea
- Beste ikastetxe batzuk



# Amaierako produktuak

(Ikasketa-ebidentzien bilketa)

- ✓ Eztabaida-antzerkia.
- ✓ GJHei buruzko horma-irudia.
- ✓ Egindako ikerketen inguruko aurkezpena.
- ✓ NBE motako amaierako eztabaidako bideo-esku-hartzea.

# Dibertsitateaz arduratzeko neurriak

(Ikaskuntzaren ebidentziak biltzea)

## Taldekoa

**Materialen eta baliabideen egokitzapena:** Material eta baliabide aukera formatu desberdinetan ematea taldeko ikasle guztien beharrak asetzeko.

**Tenporizadoreak eta argibide garbiak,** horman adierazita.

**Malgutasuna jardueretan:** aukerak eta alternatibak taldeko jardueretan, ikasleek beren gaitasun, interes eta ikasketa-estiloetara hoberen moldatzen direnak aukeratu ahal izan ditzaten.

**Rolen dibertsifikazioa:** gaitasun eta lehentasunen arabera, ikasleei rol eta erantzukizun desberdinak hartzea ahalbidetzen dieten jarduerak, lankidetzak eta talde-lana sustatuz.


## Indibiduala

**Laguntza indibidualizatua:** behar duten ikasleei laguntza indibidualizatua ematea, tutoretzen, orientazio pertsonalizatuaren edo jardueren egokitzapen espezifikoaren bidez.


**Ebaluazio inklusiboa:** ikasle bakoitzaren gaitasun eta adierazpide anitzak onartu eta baloratzen dituzten ebaluazio-metodoak erabiltzea, hazkunde eta garapen pertsonala sustatzeko atzerakadak indibidualizatua emanez (eztabaida eta antzerkia).

# Irakasleen praktikaren ebaluazioa


**Hobetu beharreko alderdiak**



**Alderdi positiboak**



**Oharrak**





# Eranskinak

## Jardueretarako errubrikak:

1. Eztabaidan parte-hartzea koebalutzeko errubrika.
2. Aurkezpenak ebaluatzeko errubrika (2. eta 5. saioak).
3. Horma-irudia ebaluatzeko errubrika.
4. Helbide elektronikorako egiaztapen-zerrenda.
5. Bideoaren kontrol-zerrenda.



# ORAINA GARA ETA ETORKIZUNA ERABAKIKO DUGU

Julia María  
Cuevas Gordo

Finantzailea:



Proiektu bat:



JÓVENES  
Y DESARROLLO  
(ONGD SALESIANA)



BOSCO  
GLOBAL  
ONGD SALESIANA